

## MARIAREN AMETSAK

Andaluziako herri txiki batean familia bat bizi zen. Familian bost ziren guztira: bi gurasoak eta beraien hiru seme-alabak Maria, 14 urtekoa, Daniel, 11 urtekoa eta David 2 urtekoa. Beraien gurasoak nekazariak ziren eta beraien kontura egiten zuten lan, hau da, beraiak zituzten lurralde gutxi batzuetan lantzen zituzten barazkiak, frutak,... gero saldu egiten zituzten. Ez zuten diru askorik irabazten, jateko eta beste zenbait gauza gutxi egin eta erosteko bakarrik. Daniel eta Maria ikastolara joaten ziren eta nahiko nota onak ateratzen zituzten, baina ez zituzten lagun asko pare bat edo horrela. Batzuetan oso gaizki eta baztertuta sentitzen ziren usain txarra zeukatelako eta arropa zikinekin ibiltzen zirelako.

Mariak amets bat zarabilkien aspalditik: berak lan on bat aurkitzea eta bere familia guztiari bizimodu hobea ematea.

Egun batean Maria ikastolatik ateratakoan, bere etxerako bidean, ordu bateko ibilbidean gizon bat aurkitu zuen lurrean etzanda zauriturik eta konortarik gabe. Maria momentu horretan beldurtuta eta ez zekiela zer egin sentitzen zen. Azkenean bere gurasoen bila joan zen etxera laguntza eskatzera. Bere aita lehenbailen atera zen etxetik bere gurdia hartuta, gero gurdian etxera ekartzeko, gizonaren bila. Gaua zenez ez zen oso ondo ikusten baina gizonarengana ailegatu ziren azkenean Maria eta bere aita. Lehendabizi ezin zuten gizona lurretik altxa, baina gero hor inguruan bizi ziren famili bateko aita-semeak atera ziren bidexkara beraien laguntzera.

Gizona etxean zegoen bitartean zauriak sendatu eta zaindu egin zioten. Egun batzuk pasa ondoren, gizona sendatu egin zen baina oraindik nahiko ahula sentitzen zenez, Mariak eta bere familiak egun batzuk gehiago gelditzeko esan zioten gizonari indarrak hartzeko. Gizonak zera pentsatzen zuen momentu horretan: hain pobreak izanik oso jende jatorra eta eskuzabala zen.

Gizona indar-berrituta zegoenean eskerrak eman eta joatea erabaki zuen.

Hortik egun batzuetara gizon hori Mariaren familiaren etxera agertzen da eta a ze nolako ezustekoa !! Beraien ondoko lurraldeko erregea zela esan zien. Errege hori bere zaldiekin, soldaduekin, emaztearekin eta

bere seme-alabekin agertu zen. Denek eskerrak eman zizkien eta egin zutenagatik erregeak urrezko txanponez betetako zakuak oparitu zizkien.

Ordutik aurrera familiaren egoera erabat aldatu zen: etxe handi bat erosi zuten eta diruaren arazoak desagertu egin ziren. Familia oso zoriontsua izan zen.